



# ARANTZAKO UDALA

---

## OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2024.04.12

**Ordua:** 16:30

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

### **Bertaratuak:**

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.

### **Bertaratu ez direnak:**

- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

### **AZTERGAIK:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-legepeko langileen hitzarmen kolektibora atxikitzea onestea.
3. 5. poligonoko 825. lurzatiko Hiri Jarduketarako Plan Berezia. Behin betiko onespena.
4. Jose Antonio Bereau Macicior zain irauliak aprobetxatzeko onespena.
5. Alkate Ebazpenak.
6. Eskaerak eta galderak.



# ARANTZAKO UDALA

## **1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.**

2024/03/15ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI da.

## **2. NAFARROAKO GOBERNUAK 2007KO URTARRILAREN 15EAN ONARTURIKO NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAK ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEK CC.OO ETA CSI-CSIF SINDIKATUEKIN SINATUTAKO LAN-LEGEPEKO LANGILEEN HITZARMEN KOLEKTIBORA ATXIKITZEA ONESTEA.**

Idazkariak azaldu du Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 96. artikuluan xedaturikoari jarraiki, udaleko lan araubideko langileei Lan Estatutua eta onarturiko hitzarmen kolektiboa aplikatzen zaiela.

Zentzu horretan Arantzako Udala orain arte modu osagarrian aplikatzen zuen Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-legepeko langileen hitzarmen kolektiboa. Halaber, udalak ez zuen hori aplikatzeko akordiorik hartua.

Horrela bada, egoera hau erregulatzeko eta segurtasun juridiko nahikoa izateko, idazkariak gomendatu du Arantzako Udala Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-legepeko langileen hitzarmen kolektibora atxikitzea.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 15ean onarturiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek CC.OO eta CSI-CSIF sindikatuekin sinatutako lan-legepeko langileen hitzarmen kolektibora atxikitzea onestea.

## **3. 5. POLIGONOKO 825. LURZATIKO HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Idazkariak azaldu du 2024ko urtarrilaren 25eko 7/2024 Alkate Ebazpen bidez hasierako onespena eman zitzaiola Federico Echeverria Madariagak sustaturiko 5. poligonoko 825. lurzatiako hiri jarduketarako plan bereziari.

Hasierako onespeneren iragarkia 2024ko otsailaren 8ko 29. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, baita Nafarroan editatzen diren egunkarietan ere, espedientea jendaurrean paratuz hilabeteko epez, interesdunek alegazioak aurkez zitzaten. Horrela bada, jendaurreko epean ez dira alegaziorik aurkeztu; beraz, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen



## ARANTZAKO UDALA

1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1.b) eta c) artikuluan xedaturikoari jarraiki, hasiera batean onetsitako Hiri Jarduketako Plan Berezia behin betiko onetsi daiteke.

Idazkariak azaldu du, Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legeko 22.2.c) artikuluan xedaturikoaren arabera, osoko bilkurak duela hirigintzako legerian aurreikusitako planen eta gainerako antolamendu tresnen izapideei amaiera emateko eskumena. Era berean, honako akordio hau ez da gehiengo osoz hartu beharko; izan ere, ez da aipaturiko legeko 47.2.ii) artikuluan xedaturiko aldaketa bat.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Federico Echeverria Madariagak sustaturiko 5. poligonoko 825. lurzatiko hiri jarduketarako plan berezia behin betiko onestea.
- 2.- Behin betiko onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79. artikuluen arabera.
- 3.- Espedientea Nafarroako Gobernuko lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari helaraztea, hamar eguneko epean gehienez ere, haren gaineko kontrola egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.
- 4.- Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

#### **4. JOSE ANTONIO BEREAU MACICIOR ZAIN IRAULIAK APROBETXATZEKO ONESPENA.**

Idazkariak Jose Antonio Bereau Maciciorrek Argastatoroko parajeen dauden zain irauliak aprobetxatzeko eskaera azaldu du.

Horri dagokionez, Bidasoako Basozainak zain irauliak markatu ditu. Guztira 1 m<sup>3</sup> dituzten 2 ondo dira, 25 €-tan baloratuak.

Horrela bada, idazkariak berriaz ohartarazi du Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 26. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 170. artikuluan xedaturikoari jarraiki, aipaturiko zain irauliaren aprobetxamendua egiteko udalak egindako balorazioaren arabera zuzenean saldu dezakeela bizilagunari.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Jose Antonio Bereau Maciciorri Argastatoroko parajeen markatutako zain irauliak aprobetxatzeko baimena ematea, horien aprobetxamendua dela eta 25,00 €-ko kanona ordaintzeko baldintzapean.



## ARANTZAKO UDALA

2.- Akordio hau Jose Antonio Bereau Maciciorri jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

### 5. ALKATE EBAZPENAK..

2024ko 47tik 53ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

### 6. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:15ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

2024.04.1  
9 19:40:15  
+02'00'

Saturnino Larralde Ibarrola

Ziurtatzen dut  
IDAZKARIA,

Data:  
2024.04.25  
09:42:23  
+02'00'

Nagore Madariaga Iriarte